

# Prest!



C./PEDRO ASTIGARRAGA Nº 4, LOCAL 2  
[www.eraikiz.org](http://www.eraikiz.org)

HORARIO:  
Matinero: 9h a 14h  
Tardes: 16h a 18h



BERBETAN: **AITZIBER BAÑUELOS GANUZA** GIZARTE HEZITZAILEA

ERREPORTAJEA: **EMAKUMEEN SEXUALITEA KARTZELAN** BARKUA: **'LANDAN LAN'**


191-192-193-194-195-196



## Gure babesleak



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Babestu










**Prest!**

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak .....
- Helbidea .....
- Telefonoa .....
- E-posta .....
- Kontu zenbakia (Iban) .....

prestarpide@gmail.com  
94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

|          |   |                         |           |
|----------|---|-------------------------|-----------|
|          | Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia - Nerea Etxaniz Osa    | <b>Iritzia</b>          | <b>4</b>  |
|          | Itxaso Garcia Chapinal   | <b>Gureak kanpoan</b>   | <b>5</b>  |
| <b>e</b> | <b>erreportajea</b><br>Emakumeen sexualitatea kartzelan<br><br><i>Tinderren kontua ireki du Itziar Moreno preso politikoak, emakumeek espetxean stexualitatearekin duten arazoa jakitera eman eta gai horrekin dagoen tabua apurtzeko.</i>  |                         | <b>6</b>  |
|          | Deustuko Ikastola    | <b>Eskola</b>           | <b>10</b> |
|          | Bidarteko etxaldea (II): Ospitalea eta sagrada familia etxe-multzoa    | <b>Behin batean</b>     | <b>12</b> |
|          | Auzo mailako asanblada   | <b>Artikulua</b>        | <b>14</b> |
| <b>b</b> | <b>berbetan</b><br>AITZIBER BAÑUELOS GANUZArekin<br><br><i>Indarkeria matxista eta haurren kontrako sexu indarkeriaren inguruko proiektuak koordinatzen ditu Aitziber Bañuelosek. Eraikiz kolektiboko kidea da eta elkarriketa sakona oparitu digu bere ikuspegi kritiko eta eraikitzailearekin.</i>      |                         | <b>16</b> |
|          | Zorrotzaurreko punta, 1968   | <b>Irudiak berbetan</b> | <b>21</b> |
|          |    |                         | <b>24</b> |
|          | <b>MUSIKA</b> Landan lan  |                         |           |
|          | <b>GAZTE LOKALA</b> Bizirik gaude!  |                         |           |
|          | <b>PINTXODROMOA</b> Brest kafetegia   |                         |           |
|          | <b>KULTUR TXOTX</b> Josu Oleaga eta Elorri bertso-eskolako kideak   |                         |           |

**barkua  
bete  
herba**

# Prest!

**Argitaratzailea:**  
BLB Komunikazioa Koop. Elk.  
Tel: 94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42  
Deustu 48014  
bilbokoaldizkariak@gmail.com  
uriola.eus  
@uriolaeus  
facebook.com/uriolapuntueus

**Zuzendaria:** Jone Gartzia Gerra  
**Erredakzioa:** Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Josu Oleaga, Janire Soldevilla, Mikel Aiartzaguena, Nerea Etxaniz, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Maialen Gago, Jon Intxaurrega  
**Kolaboratzaileak:** Elorri Bertso-Eskola, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea  
**Argazkiak:** Iñigo Azkona Bikandi  
**Publizitatea:** Jone Gartzia Gerra  
**Diseinua:** BOST  
**Maketazioa:** Amaia Gil Basterretxea  
**Inprimategia:** Antza  
**Ale kopurua:** 2.800  
**Lege Gordailua:** BI-571-01  
**ISSN:** 1577 - 9017



**Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia**  
Gazte mugimenduko kidea



## Oinak lurrera, konfiantzazko ariketa

Iparraz, iparrorratzaz eta pertsoez aritu nintzen aurrekoan. Abstraktutasunaren erosotasunetik jaitsi eta aurreko iritzien haria guztiz ez apurtzeko esperantzaz, aitortu behar dut azken egunetan iparra nahiko galdurik ibili naitzela.

Ez dakit dakizuen, baina abendua da Medikuntzako ikasle on zigor-hilea, egunero liburutegian orduak eta orduak sartuta ematekoa. Eta horrela, medikuntzako ikasle on bizi guztiz gelditzen da. Goiza eta gaua bereiztea ezinezko egiten zaigu pertsiana itxita duen gure ikasmahairen ondoko leihotik begira. Gure bizitzak ardatz bakar baten baitan bitartzen du, ikasketen baitan.

Errealitatea beste bat da, ordea. Bizitza aurrera doa, bai munduaren beste puntan eta baita gure inguruan ere, eta,

egoera horren aurrean, nola ez sentitu eskizofreniko sarritan, nahi eta ezinean ibilita.

Bai, bateko mobilizazioan egon nahi nuen, eta baita besteko bileran parte hartzeko esperantzak nituen... Azken finean, hau da egia, gauza guzti horiek egiteari utzi diot, eta, horrenbestez, hau da galdera: ea mundua geldituko duen boia zapaltzea beharrezkoa den, naturala den edo ez.

Ohartuko zineten, oraingoz ez dut erantzunik eta testu honek ere ideia findu baten falta du. Aitortuko dizuet: denbora gainera etorri eta iparrik gabeko testu bat idazten nabil. Aipatu zuen behin Otegik Platonena omen den esaldi bat, honela zioena gutxi gorabehera: "tontoek zerbait esateko hitz egiten dute, azkarrek ordea, esateko zerbait dutelako". Eta iparrik gabe naizenez, (hainbeste ikasteagatik) igual tontotuta ere banabil.



**Nerea Etxaniz Osa**  
Petritetik



## Atsokeria bat

Sinesten dut Apokalipsian, zergatik ez. Hori bai, utzi pardoak, txafleroak eta bestelako pitokeriak. Suziri-hotsa barik kanta eta kontu zaharrak behar ditugu. *Bukaera da / Bukaera auresentitzen da / Arratsalde euritsua kama-leoientzat...*

Jantziko ditugu gaueko argitan eguzkitako betaurrekoak, Areatza inguruan paseoan ibiltzeko; egunez, errukiz begiratuko diegu arnasestuka, eldarnioan, dendaz denda dabilzan fededunei; gona motza eta ezpainak gorri-gorri jarriko dizkiogu gure Queer-Olentzerori, egingo dugu topa armagile eta zale guztien alde, merezi dutena izan dezaten, eta konturatu orduko, atsegin handiz, *Hator Hator* desafinatuko dugu *Lau haizetara...* Eta, burua zer den, amama

zenak gure kontura egiten zituen barre-algara haiek go-goan, botako dugu *Inuxente-inuxente, txakurraren buztana tente!* Faustina txantxazalea zen eta halaxe irudikatzen dut Gabon zaharra ere, atso bihurri harpajolea kar-karka. Bitartean, gure katua Purrustak sabela bapo bete eta buztana tente, eta gu poz-pozik.

Zorionez, -Ruperri ikasita dakigu hau- *Inork ez du dena ohitura, dena errua, dena barkamena...* Eta, egia da: ohi-tura edota tradizioari traizio egitea onena, erru-banatzaile gehiegi dabil bazterretan, eta barkamenarena Vatikanuari utziko diogu. Hala bedi.

*Mea-kulparik ez.*





## Itxaso Garcia Chapinal

**Jatorria:** Sarriko

**Bizitokia:** Bielefeld (Alemania)

**Lanbidea:** Gizarte langilea



**“Migranteen aurkako diskurtsoak orokortu dira, baina baita kontra-mugimenduak indartu ere”**

Testua  
Prest!

### Noiztik bizi zara Bielefelden?

Duela bost urte heldu nintzen, 2013ko urrian.

### Zelako herria da?

Herri ertaina, Bilbok beza-la 300.000 biztanle inguru ditu. Asko gustatzen zait leku gutzietara oinez edo bizikletaz joan naitekeelako. Gainera, hiria Teutoi basoaren alboan dago, parkez inguratutik, eta oso berdea da.

### Zertan zaude lanean?

Orain dela urte bat gobernuz kanpoko erakunde batean lan egiten hasi nintzen. Erakundearen helburu nagusia migranteen lan-integrazioa da eta euren jaioterrietan ikasitako eremuan lana aurkitzen saiatzen gara. Horretarako haien ikasketak hemen balioztatzen laguntzen diegu. Prozesua nahiko konplexua da eta batzuetan migratzaileek ez dute hizkuntza menderatzen.

### Neska gazteekin ere proiektu bat daukazu. Zertan datza?

Orain dela bi urte eskola batean neska talde batekin lan egiten hasi nitzen. Hemen klaseak nahiko goiz amaitzen direnez, eskola batzuek astean behin ekintza taldeak eskaintzen dituzte 12 eta 14 urte bitarteko ikasleentzako. Nire taldea Nesken Taldea deitzen da eta gure helburua

da jardueren bidez genero estereotipoak eztabaidatzea eta adibide positibo berriak ematea. Esaterako, noizbehinka jateko zerbait prestatzen dugun bitartean, bikoteen arteko harremanei buruz hitz egiten dugu eta arauetatik ateratzen diren adibideak eman edo neskek izandako esperientziak kontatzen dituzte.

### Zelako da bertako bizimodua?

Hemen bizitza oso desberdina da neguan eta uda-udaberrian. Neguan etxean denbora asko pasatzen dute hotza eta iluntasunagatik. Baina eguzkia ateratzen den momentuan... denak irteten dira parke eta enparantzetera. Neguan etxean egiten diren planak (afariren bat, jolasen bat...) kanpoan egiten dira (piknika, kanpoan jolastea..). Eguzkia aprobetxatu behar da, ez dakizulako noiz aterako den berriro! Esango nuke Bilbon kalean denbora gehiago egoten garela hemen baino.

### Zerk harritu zintuen gehien horra heldu zinean?

Mundu guztia bizikletaz doala leku gutzietara. Aitona-amona nagusiak zein 3-4 urteko umeak bizikletan ibiltzen dira edonora joateko, eskolara, erosketak egitera... Horrek esan nahi du bidegorri sare handia dagoela eta kotxeek

bizikletak asko errespetatzen dituztela.

### Zelako da Alemaniako egoera politikoa?

Azkenengo urteetan eskuin-erradikaleko alderdi eta elkar-teak (AfD, Pegida) garrantzi handia hartu du. AfD-k parlamentu alemaniarrean 91 diputatu ditu! Horrez gain, migranten aurkako diskurtsoak orokortu dira. Baina kontra-mugimendu handia dago, adibidez, elkarte asko sortu dira azken urteotan heldu-berriak laguntzeko edo aniztasuna sustatzeko. Hala ere, ekuialdean AfD-k botere gehiago du, ni mendebaldean bizi naiz eta egoera lasaiagoa da.

### Egunerokotasunean igertzen da?




Lanean nahiko igertzen dut bereziki gobernuak finantzatzeko duen proiektu baten lan egiten dudalako, gero eta laguntza gutxiago eman nahi dituzte. Esperientzia arrazistarik ez dut izan momentuz, baina Europar Batasunetik kanpo datozenek edo “kanpotarra-goak” diruditenek orokorrean horrelako egoera gehiago sufritzen dituzte.

### Itzultzeko asmoa duzu?

Ez da batere erraza galdera honi erantzutea. Itzultzeko asmoa dut, baina ez dakit noiz. Urte pare bat barru edo... batek daki!

## erreportajea

Emakumeen sexualitatea kartzelan



## Itziar, 36

📍 a menos de un km de distancia

"Barruan be barrabasak gara barruan be barrendu gura barruan be baxuran gogoa..."

...Zer? Ez dela ulertzen?

Argiago hitz egiteko tenorea daukagu, bai! Kartzelan ere, emakumeok ere larrua jotzeko gogoa daukagu... eta ozen bezain harro aldarrikatuko dugu!

Izan aske eta gozatu asko!

Gora bihotzak eta behera frakak!!

Itziar Moreno Martínez

Euskal preso politikoa

Roannen Euskal Herriatik 764kmra

# EMAKUMEEN SEXUALITATEA KARTZELAN

*Tinderren, jendea mugikor bitartez ezagutzeko aplikazioan, kontua ireki du Itziar Moreno euskal presoak. Emakumeek espetxean sexuaz gozatzeko zailtasunen berri eman eta tabua gainditzeko "ekintza porno terrorista txikia" gauzatu du, "umorea eta aldarrikapena uztartuz".*

Testua: Itziar Moreno Martinez

Preso dagoen gizonaren sexu-beharra ulertzen den bitartean, emakumeok kartzelan igarotzen ditugun urteak "gudari-mojen" gisan bizi behar omen dugu. Aski ezaguna da gurean, gizon bat espetxeratzen dutenean, aurretiaz bikoterik ez badu, bere herri edo auzoan berehala jartzen direla martxan. Zenbatetan ez dugu entzun (edo, zuzenean, ez digute galdetu) "morrosko honi neska jator bat bilatu behar diogu"? Baita topa-

tu ere! Bada, emakumeok zaintza rol hori betetzeko prestutasun handiagoa daukagu, baita mugimendu ezkertiar iraultzaileetan ere.

Zoritxarrez, kartzelan eman ditudan urte hauetan, preso dauden emakume gehienek sexu falta dutela egiaztatzeko aukera izan dut. Edozein kartzelara gizon bat bisitatzera joaten garenean, nor egoten da, bada, gai-

nontzeko lokutorioetan? Presoen amatxoak, emazteak, neska-lagunak, seme-alabak...

Zer gertatzen da, ordea, amatxoak, emazteak eta neska-lagunak direnean kartzelan daudenak? Tristeza bezain errealak da: emakumeek, kartzelan, oso bisita gutxi izaten dute. Askok ez daukate inoiz ikustaldirik eta, badituztenen salbuespen eskasaren artean, oso-oso gutxitan ikusi dut emakume baten senarra edo gozalaguna bisitara etorzen. Orokorrean, bikoteek abandonatu egiten dituzte, familiek baztertu egiten dituzte, seme-alabak kentzen dizkiete...

Horren ondoan, euskal preso politikok, zorionez, elkartasun handia jasotzen dugu. Eskuariki, gizon zein emakume izan, astebururo izaten dugu bisita; deiak eta gutunak ere ez ditugu faltan izaten! Senideen, lagunen eta herriaren babesa jasotzen dugu eta hori benetan eskertzekoa da lau hormen artean gaudenean. Zuek zarete gure makulua!

Elkartasunik ederrenak ere, aldiz, ezin du genero bereizkeria hori ezkutatu, eta gainerako emakume presoek bezala gertatzen zaigu guri ere: kasu gehienetan, edo biko-



tea preso daukagu, edo, besterik gabe, ez daukagu bikoterik, senarririk edo gozalagunik. Akaso, baieztapen honek hautsak harrotu ditzake, baina uste dut ozen esateko tenorea daukagula: emakume preso gehienak bezala, gu ere, harreman afektibo-sexualei dagokionez, usu, berdin-berdin abandonatzen gaituzte. Gure ingurua egoera horrekin ohartarazteko xedearekin, eta, gai honen inguruko gogoeta pizteko, Tinderrean nire izena ematea erabaki dut: zirikatze eta probokatze.

**“Emakume preso gehienok harreman afektibo-sexualei dagokionez abandonatzen gaituzte”**

Esan gabe doa bikote falta ez dela zertan arazo izan; are, erabaki askea izan daitekeela, nola ez, “ohiko bikote finkoaren” figurari uko egitea. Gero eta gehiago gara, egun, kapitalismo hetero-patriarkalak inposatzen digun bikote-familia harreman eredu bakar eta monogamoaren eredu arbuaitzen dugunok. Harremanak (ere) borrokarako eremu (ere) badira! *Pertsonala dena politikoa da* lema feminista zaharrak erabateko gaurkotasuna izaten jarraitzen du.

Ekimen xume honetarako Tinder erabiltzea aukeratu dut hau ere azpimarratzeko: emakumeok bikote finko bat bilatu izan ei dugula beti eta, ezinbestean, amatxoak izan behar eta nahi dugulako topikoa apurtze-





ko. Besterik gabe larrua jotzeko gogoa ere badaukagula aldarrikatu nahi nuen. Elkartasuna, halaber, txortan adierazi daiteke, kar-kar!

### **Tinder, propagandarako tresna baino ez**

Zehaztu nahiko nuke ez dudala Tinderren defentsa egiten. Jakin badakit, gaur egun, hainbat eragile feministek Tinder eta gisako tresnak kritikatzan dituztela, sexuaren eta gorputzen merkantilizazioa bultzatzen dituztelako, harreman zuzen, natural eta askeen kalterako. Irakurketa horrekin bat egiten dut. Haatik, Tinder aldarrikapen konkretu honen propagandarako bitarteko eraginkorra iruditu zaidalako erabili dut, besterik gabe.

Argibide tekniko pare bat beharrezkoak dira iruditzen zait. Izan ere, presook ez baitugu Interneten aritzeko aukerarik, inondik inora. Tinderreko kontua lagunek ireki didate, Euskal Herrian. Ni Frantzian, Roanneko kartzelan nago, bilatzaile horretatik 850 kilometrora! Arestian azaldu bezala, Tinder

emakume presoon sexu gogoia aldarrikatzeko jarri dut martxan, kartzelan sexualitatearekin dagoen arazoari buruz hausnartzen jartzeko eta jendea apur bat probokatzeko. Hau da, ez da praktikan erabiltzeko, nik ezin baitut aldiro ikusi nor dagoen zerrendan, nork klikatu duen *like*... Lantzean, lagunek datuak inprimatzen dizkidate, ekimenak ematen duena ikus dezadan. Aukera profitatzen dut laguntza eskaini didaten lagunei eta, ekimena ulertuta, *like* klikatu duzuen guztiei esker beroak (eta lizunak) emateko.

### **Hainbat erreakzio**

Nire senide eta lagunek aski ezagutzen nautenez, harritu ez dut uste asko egin direnik. Nik uste dut dibertigarria suertatu zaiela, baina, aldi berean, ekimenaren zergatia ulertu dutela. Azpimarratu nahiko nuke, ordea, beste ezeren gainerik, euren sostengua eta laguntza eskaini didatela, beti bezala. Nire gurasoek, ziurrenik, ez dute ezagutu ere egingo Tinder zer den... Agian, elkarrizketa hau irakurtzerakoan enteratuko dira!

Tinderreko erabiltzaileen artean ekimenak orokorrean harrera ona eduki duen arren,





bi erantzun mota bereiziko nituzke. Bateko, preso nagoela dakitenak (aurretiaz nire izena ezagutzen zutelako) edo hori ulertu dutenak (argazkiaren azpian dagoen testua irakurtzerakoan ohartu direnak), besteko, egoeraz jabetu ez direnak. Lehenengo taldeko gehienek ondo erantzun dute: *like* klikatzen, animoak bidaltzen...

Kontrara, lagunek kontatu didatenaren arabera, beste batzuk, argazia ikusi eta *like* klikatu ostean, preso politikoa naizela jakin dutenean, kontaktua berehala moztu dute. Bigarren taldekoen erantzunak, aldiz, aski barregarriak dira. “¿Qué tal el veranito?” eta gisako komentarioak idazten dituzte, kartzelatan nagoela ulertu barik, kar-kar!

### “Kartzelan emakumeak ber-hezten tematzen dira”

Kartzelan, gizonak eta emakumeak sexu-harremanetarako antzeko gogoak eduki arren, ez dut uste, praktikan, berdin bizitzen dugunik. Oraintsu aipatu bezala, kanpotik jasotzen duguna eta, batez ere, kartzela-sistemak berak inposatzen diguna ez delako inolaz ere berdina.

Askotan salatu izan dugu emakumeak, espetxean, zigor bikoitza (edo hirukoitza, irakurketaren arabera) pairatzen dugula. Kartzelak, eta baita jendarteak berak ere, gogor zigortzen du “bide onetik” ateratzera ausartzen den emakumea. Kartzela-sistemak, ardi otzanan gisan, bueltan eraman nahi gaitu galdutako ustezko “bide onera”. Horretarako, kanpoan sistema errepresiboak herritarrekin egiten duen bezalaxe,

makila ala azenarioaren teknika baliatzen dute. Men egiten duenari, otzana denari saria (zigor eza) eta bereari eusten dionari edota aurre egiten duenari... makila!

Espetxean, emakumeak ber-hezten tematzen dira eta umeak bagina lez tratatzen gaituzte. Sexualitateari dagokionez, zehazki, arrokekin, eduki beharreko jarrera zintzoarekin edota bisiten gaineko kontrol itogarriarekin mugatzen edo zigortzen gaituzte. Jazarpena era askotakoa izan daiteke: bi emakume patioan (edo moduluko beste edozein tokitan) musuka aritzeagatik zigortuak izan daitezke, baita bisita-lokutorioetan larrutan harrapatuz gero ere.

Esetsaldi horren guztiaren gainetik, ordea, aske jarduteko bideak eta trikimailuak topatzen ditugu, preso egonagatik ere, ez baikara preso! Ororen gainetik, ideia bat azpimarratu nahiko nuke; elkartasuna gogor zigortzen badute ere, kartzeletan, elkartasuna egon, badagoela. Une gogor bezain ederrak bizi izan ditut urte hauetan, emakume presoekin batera, dagokiguna borrokatzen.

### “Espetxeak pertsona mendeant hartzeko baino ez du balio”

Helburua ez da, nire ustez, kartzelak eraldatzea edo hobetzea, ez baita existitzen kartzela onik! Espetxeak pertsona mendeant hartzeko baino ez du balio; izan ere, kartzelak XXI. mendeko tortura zentro modernoak dira, ez besterik. Gure herrian, gaur egungo zigor-ereduaren inguruko eztabaida sakona behar dugu, kartzelak, behingoan, desgertze bidean jartzeko.

**“Helburua ez da kartzelak eraldatzea edo hobetzea, ez baita existitzen kartzela onik”**



www.renault.es / 902 333 500

## RENAULT BILBO BERRI

**IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA  
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA**



**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)

RENAULT presentatzen du **CFR**



# EUSKALDUNAK MUNDUAN

*Aurten, Hizkuntza Proiektuak bideratuta, 'Euskaldunak munduan' lehiaketa antolatu dugu DBHko ikasleen artean. Ikastalde bakoitzak ideia horren inguruan atondu du ikasgela eta bi sari egon dira, bat lehenengo ziklorako eta beste bat bigarren ziklorako.*

**Testua eta argazkiak**  
Deustuko Ikastola

Ikasleen artean euskararekiko eta euskal kulturarekiko motibazioa piztea helburu izan du lehiaketak, euskal mundua baserri girotik baino askoz urrunago zabaltzen dela ikusaraztea. Ikasleak tutoretza orduetan aritu dira tutoreen laguntzarekin eta oso gauza interesgarriak sortu dituzte ikasgelak mapamundiak bihurtuta: Islandiara joandako arrantzaleak, Australia eta Ameriketako euskal etxeak... Aldi berean, ekintza horren bidez, tutoreekin eta gainerako irakasleekin harre-

mana modu ez-formalean egin da, hizkuntza ez formala erabiliz, gertuko tratua landuz...

Guraso Elkartearen inplikazioa ezinbestekoa izan da proiektua aurrera eramateko. Irabazleen aukeraketan eta sariaren ordaintzan lagundu dute. Irabazleak San Tomas azokara joango dira eta taloa jango dute. On egin!

## **DBH-2C**

Gu 2. C-ko bi ikasle gara, Nerea Izagirre eta





Ane Larrea, eta gure klaseak ekintza honetan parte hartu du. Nahiz eta irabazi ez, aste dibertigarriak pasatu ditugu gure ikaskide eta tutorearekin batera. Eztabaida motibagariak izan ditugu beste klaseetako ikasleekin, “kopiatu gaituzue”, “ideia hori gurea zen” “guk irabaziko dugu txapelketa” eta horrelako elkarrizketak suertatu dira. Talde moduan hazi egin gara, gehiago ezagutu dugu elkar eta gure artean elkar errespetatzen ikasi dugu. Azkenengo momentuan ideia on bat izan genuen, eta horregatik irabaziko genuela pentsatu genuen arren, ez zen horrela izan. Hala ere, ez dugu amorerik eman, datorren urtean saria irabazteko gogotsu gelditu gara!

### DBH-2A IRABAZI DUGU!

Hasieratik, irakasleek aipatu zituzten irabaz-

teko aukerak genituela. Orduan, guztiok seriotasunez hartu eta izugarri motibatu ginen. Esan beharra dago lan honek asko batu gaituela, zereginak banatu eta denok jarri dugulako zerbait. Momentu honetan gela gurea balitz bezala sentitzen dugu. Ekintza honek hurrengo urteetan jarraitu beharko luke.

### DBH-3C

Orain dela hiru aste, lehiaketa batean parte hartzea proposatu zituzten. Gure gela apaindu behar genuen *Euskaldunak munduan* leloan oinarrituta. Oso lehiakorrek garenez, erronka serio hartu genuen irabazi nahi genuelako. Hainbat ideia on proposatu genituen klasean eta QR kodeak erabiltzeari esker irabazi dugu. Gure hormako irudiak zuzenean eramaten zaitu kanpotik etorritako jende euskalduna ezagutzera.



## ARTEBI

MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN  
BILBOKO ESKOLA

**MUSIKA - DANTZA  
ANTZERKIA - GIDOIA**

Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49  
artebilbao@terra.es www.artebi.es

## YVES ROCHER

FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765

Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48

H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303





## BIDARTEKO ETXALDEA (II): OSPITALEA ETA SAGRADA FAMILIA ETXE-MULTZOA

*Aurreko hilean Bidarteko etxaldearen historiari argia ekartzeari ekin genion. Oraingo honetan, zeregin horri amaiera emango diogu. Ricaro Arregi Ibarrak sortu zuen txaleta Bilboko Aurrezki Kutxak erosi zuen 1930eko urtarrilean.*

1930ko apirilaren 5ean Aurrezki Kutxak, jabe berriak alegia, Bidarteko etxaldean zaharberritze eta zabalpen lanak egiteko baimena eskatu zion Bilboko Udalari (Deustua 1925ean anexionatu zuen). Txaleta, kotxera eta beste zerbitzu batzuk zeuzkan etxaldeak. Eta zertarako nahi zuen Kutxak? Udal artxiboan aurkitu dugu erantzuna. Kutxako zuzendariak, Eliseo Migoyak alegia, obra egiteko eskabidean zehaztu zuenez, Bidarten Onkologia institutua eraikitzen ari ziren, Ricardo Bastida arkitektoaren proiektuaz. Alegia, txaleta eta hari atxikita altxatu behar zuten eraikin berria (pabiloi itxurakoa) Bilboko Aurrezki Kutxak sustatutako Onkologia institutua bilakatu behar ziren.


Aipagarria da sasoi hartan Aurrezki Kutxak onkologia eta haren gaineko artatze lanei buruz erakutsi zuen interesa. Ez dezagun ahaztu Gipuzkoan Instituto Radioquirúrgico izenekoa diseinatu zutela 1928an, baita inauguratu ere 1931n, gipuzkoar mediku talde baten ekimenez. Sendagile haiek kezkatuak zeuden umetoki-minbizi larriak aurkitu zituztelako artatzen zituzten emakumeengan.

Idea ez zen berria Bilbon. “Bilbao” aldizkarian irakurri dugunez, “Enrique Areilzak Minbizia Institutua sortu nahi izan zuen Bilbon, artean sakabanatuta zeuden indar guztiak batzeko eta gogor borrokatzeko 1920an nabarmen hazten hasi zen patologia hura. Badirudi Areilzak argi ikusi zuela XX. mendeko bigarren erdialdean izurrite bihurtuko zela. Lau mediku gazteri gomendatu zien atzerri joan eta gaixotasun horren diagnostikoan eta artatze-lanetan formakuntza har zezaten: Ramon Azaola, Julian Guimon, Justo Garate eta Francisco Belaustegigoitia. Haietako bat, Julian Guimon hain zuzen, izan zen gauzatu ez zen proiektu hartaz idatzi zuen bakarra. Guimonen artikulua argitaratu eta urte gutxira Areilza hil zen eta harekin batera institutu hura ehortzi zuten”.

### Kuartela eta 18 de Julio

Bidarteko pabiloi berria eraiki zutenetik 1936ko gerra arte osasungintzarekin lotutako zereginetara erabili zutela pentsatzen dugu. Gerra hasi zenean Odol Ospitale gisa atondu zuten, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzurako.

Testua  
Txema Luzuriaga



1930eko planoak



1937an bertan berriro handitu zuten eraiki-na, gerra-elbarrien errehabilitaziorako lekua egiteko. Gerra amaituta, etxaldea osatzen zuten lursailetakoz batzuk erauzi egin zituzten, eta 1941ean Bidarteko etxaldeko 39.748 m<sup>2</sup> desjabetu zituzten Armadaren etorbidea eraikitzeko (gaur Agirre Lehendakaria).

### Sagrada Familia

Harrezkero, Bidarteko etxaldea erditik zatitu eta gero, etxalde bi gelditu ziren: goikoa, txaleta eta berdegune txiki bat, Enekuri eta Agirre etorbideen artean kokatua, Kutxarena lehenengo, Falangerena geroago, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzarena ondoren eta 1990ko hamarkadatik, Bilboko Udalarena; eta behekoa, Agirre eta Madariaga etorbideen artekoa. 1955ean, Kutxak Sagrada Familia etxe-multzoa eraikitzeari ekin zion bertan. A. Santas Torresek idatzi zuenaren arabera, 650 babeseko etxebizitza ziren. Obra Sindical del Hogar erakundeak San Ignazio auzoa egin ostean, Sagrada Familia zen, une hartan, Bilbon klase ertainentzat eraikitako etxe-multzorik handiena.

Bidarteko jauregiak, bitartean, 18 de Julio ospitale moduan segitzen zuen, amaetxe eta

zainketa aringarrietarako egokituta. 1956an Falangek kontsulta egin zuen jakiteko eremu hartan eraiki ahal zuten. Zorionez, ezezko erantzuna jaso zuen. Ospitale moduan segitu zuen, beraz. 1986an, Espainiako Instituto Nacional de Servicios Socialesek lizentzia eskatu zuen Bidarte zaharberitzeko eta elbarri psikiko sakonak artatzeko zentro gisa atontzeko. Ez dirudi inoiz gauzatu zenik. Geroago, 1991n alegia, Francisco Javier Gastón arkitektoak proiektua aurkeztu zuen Bidarte GUFÉ-IFAS foru erakundearentzat egokitzeko. Hark ere ez zuen aurrera egin.

Bitartean, Bidarte itxita eta galduta zegoen. 1994an, Gizarte Segurantzarekin egindako truke baten bidez, Bilboko Udalaren esku gelditu zen eta honek Deustuko auzo-etxea izateko egokitu zuen, Martin Peña arkitektoaren proiektuaren arabera. Artean, etxaldeak 14.142 m<sup>2</sup>ko azalera zeukan. 1998ko maiatzaren 15ean zabaldu zuen Bilboko Udalak Deustuko auzo-etxe berria. Eraikinak 1.664 m<sup>2</sup> dauzka. Jauregia Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren Ondare arkitektonikoaren zerrendan dago. Horren ondorioz, derrigorrezkoa da egoki gordetzea eta zaintzea.



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99

# AUZO MAILAKO LEHEN ASANBLADA

*Joan den azaroaren 30ean Elorrieta, San Inazio eta Ibarrekolandako hainbat lagun elkartu ginen gure auzotako problematikak aztertu, informazioa eta iritziak partekatu eta horiei aurre egiteko irtenbideak bilatzeko.*

**Testua eta argazkia:**  
Errondoko  
Auzo Etxea

Hiria modernizatzeko aitzakia hartuta, Udala Bilboko hainbat zonaldeetan aldaketa handiak egiten ari da. Turismoa sustatzeko ekitaldiak, nazioarteko jaialdi eta lehiaketak edota plan urbanistiko faraonikoak errealitate bihurtu dira egun txoko guztietan.

Gure auzoetan ere hainbat erreforma egin nahi dituzte, baina, beti bezala, Udalak azken unean aurkezten dizkigu proiektuak, dena erabakita dagoela. Gure errealitatearekin bat ez datorren irudia saltzen dute eta gure hitza eta erabakitzeke gaitasuna zapaltzen dute.

Egoera horri aurre egiteko erabaki genuen auzo mailako asanblada bat antolatzea, auzokideon interesak defendatzeko tresnak egituratze alde-  
ra. Lehen aldia izan zen auzo mailako asanblada bat antolatzen genuela, eta jendearen erantzuna ezin hobea izan zen: 60 lagun baino gehiago elkartu ginen auzoari eta auzokideoi eragiten dizkiguten gaien inguruan eztabaidatzeko. Aurrekaririk gabeko biltzarra izan zen, luzera begirako dinamikari jarraibidea emango diona.

Besteak beste, Udalak auzoan egin nahi dituen plan urbanistikoak, mugikortasuna, kaleko aparkalekuen arazoa, kutsadura eta auzoko ekipamenduak mahaigaineratu genituen. Jarraian, landutako gaiak eta asanbladan jasotako iritzien ondorio orokorrak azalduko ditugu.

## **Ibarrekolandabidea kaleko parkea**

Udalak Elorrieta eta Madre de Dios ikastetxearen artean parke bat eraikitzeke asmoa du. Egungo udal-ordenantzak eraikin berri bako-

itzeko hiriko eremu berdeak handitzera behartzen du. Asanbladara gerturatutakoaren artean, susmo orokorra da parkearen helburua etxebizitza berri gehiago eraikitzea dela. Gainera, inguruan ortuak eta baserriak dituzten auzokide asko indarrez desjabetu beharko lituzkete.

## **Zorrotzako Sader fabrika**

Hondakin arrakutsuak tratatzen dituzte bertan, baina ez dago neurtuta sortzen duen kutsadura. Printzipioz 2018an lekualdatuko zuten lantegia, baina eragozpen teknikoak medio, ezin izan zuten egin. Gaur gaurkoz lekualdaketak blokeo egoeran dago, ez baitago fabrika hau hartu nahi duen udalerririk. Aurreikusita dago Zorrotzaurreko plana aurrera joan ahala bertatik kentzea, baina ez daukagu baieztaterik. Fabrikaren kea arnasten dugun auzokideon segurtasunak arriskuan egoten jarraituko du, Udalak etxebizitza eraikitzea lehenetsi duelako inguru osasungarria bermatzea baino.

## **Osasun-etxea**

Osakidetza da anbulatorioak antolatzeaz arduratzen den instituzioa. Dagoeneko, duela bi urte Ibarrekolandan beste osasun-etxe bat eraikitzea gomendatu zuen. Udalak San Ignazioko anbulatorioa lekualdatzeko asmoa dauka. Hasierako proposamena arraun-pabiloiaren gainean eraikitzea da, baina ez dago baieztapenik. Zorrotzaurre proiektuaren baitan eraikiko dituzten etxebizitzek arazoa handitzea ekarriko dute, alta, plan honen arabera, lehendabizi etxebizitzak eraikiko dituzte, eta ostean auzo-ekipamenduak.

## San Inazioko zubia

Hasierako proiektuaren arabera uharteak zazpi zubi izango zituen, orain bira murriztu dituzte. Honenbestez, mugikortasun eta trafikoa arazoak aurreikusi daitezke. San Inazio eta uhartea batuko dituen zubiak lau errail izango ditu, bi ibilgailu pribatuentzako eta beste bi autobusentzako. Ikusteke dago antolaketa horri eutsiko dioten.

## TAO


Lortu ditugun datuen arabera, auzoan 8.565 kotxe matrikulazio daude, 6.734 garaje plaza eta 4.600 aparkaleku kalean. Emandako datuen arabera, 2.769 plaza egon beharko liriteke soberan, baina nabaria da auzoan aparkatzeko arazo larria dela. Problema kanpotik aparkatzera datozen autoak balira, asteburuetan 3.000 aparkaleku inguru egon beharko liriteke hutsik, baina ez da horrela izaten. Zurrumurrua zabaldu da egoerari aurre egiteko Udalak 2019an TAO zerbitzua ezartzeko asmoa duela, baina oraingo ez da ezer baieztatu.

Asanbladan parte hartutako en artean hainbat iritzi zabaldu ziren. Batzuk TAOren alde agertu ziren, eta beste batzuek azaldu zuten zerga berriak ez lukeela aparkalekuen arazo arinduko. Hainbatek proposatu zuten Udalak parte-hartze prozesu bat ireki beharko lukeela auzotarrok, informazioa emateaz aparte, iritzia emateko eta erabakiak hartzeko aukerarekin eta, TAOaz gain, beste irtenbide batzuk proposatuz, esaterako, hiriaren sarreran disuasio-parkinak ezartzea.

## Auzoa eta Udalaren arteko harremanak

Estatistiken arabera bilbotarran %5ak baino ez ditu Barrutiko Kontseiluak ezagutzen. Berrez, kontseiluen helburua barrutien eta Udalaren arteko zubia izatea da. Kontseiluak 18

kidek osatzen dituzte, 13 ordezkari politikok eta bost batzordekidek. Azken horiek auzo elkarteetako kideak, merkataria, auzoko eragileak, guraso edota familia elkarteak izaten dira, auzokideak era zuzenenean ordezkatzatzen dituztenak hain justu, baina ez dute boto eskubiderik. Gainera, Barrutiko Kontseiluan



onartutakoak dagokien Udaleko sailtara bideratzen dira, eta ondorioz, ez dute eragin praktikoa handirik.

## Hurrengo asanblada

Dinamikak erantzun zabaldu izan zuten auzokideon artean. Auzoko problematiken inguruan eztabaidatu eta irtenbide komunak bilatzeko espazioa bihurtu nahi izan genuen Errondoko Auzo Etxea, eta bide horretan jarraitzeko asmoa daukagu. Hurrengo hitzordua urtarrilaren 24an jarri dugu. Bertan, lehenengo asanbladan landu gabe utzitako gaiak jorratuko ditugu eta planteatutako arazoak konpontzeko ideiak plazaratzeko tarte hartuko dugu. Guztiok zaudete gonbidatuta, auzoak auzokideonak baitira.

**Ahaztuz**  
Astelehena 28 **TXOBORRO**: magia musikara  
Osteguna 27 **DANTZARI** "Boli bili boli" (dantza)  
Ostirala 26 **BEHINGOLA** "Txerri txerriaren ipuin musikatua" (ipuin kontalaria)

**Ahaztuz**  
Astelehena 3 **ZIKUN ZIKHO "Tina"**: txotxongiloak  
Osteguna 3 **ENAITZ**: ipuin kontalaria  
Ostirala 4 **SUDURKERAK "Mugi mug!"**: haur berbera

**Luzkararen etxea, gure etxea!**  
**SARRERA DOAN**  
Ekintza guztiak goizeko 11:00etan dira.

**Non?**  
Agoitz plaza  
Lehendakari Agirre  
150 ondoren, Bilbo  
Sarrate

**Kontaktua**  
• [www.azkoefunbarrutia.euz](http://www.azkoefunbarrutia.euz)  
• [info@azkoefunbarrutia.euz](mailto:info@azkoefunbarrutia.euz)  
• 94 402 80 81

**Jarrailu**  
f t y +

**ARRA**  
AZKOEFUNBARRUTIA

# dberbetan

AITZIBER BAÑUELOS GANUZAekin

Gizarte hezitzailea

*“Gero eta onartuagoa daukagu*

*Indarkeria matxista eta haurren  
kontrako sexu indarkeriaren  
inguruko proiektuak koordinatzen  
ditu Aitziber Bañuelosek. Eraikiz  
kolektiboko kidea da eta elkarrizketa  
sakona oparitu digu bere ikuspegi*





Testua: Nerea Olaziregi - Argazkiak: Iñigo Azkona



## emakumeen kontrako biolentzia”

### Zer sentitzen duzu indarkeria matxistak beste emakume bat erail egin duela entzuten duzunean?

Oso era kontziente eta ohikoan bizi izaten ditut gertaera horiek. Eraiketa bat emakumeok etengabe pairatzen dugun indarkeriaren adierazpenik dramatikoena da. Horrelakoak entzutean beti datorkit galdera bera burura, alegia, zergatik ez dituzten bitartekoak jartzen emakumeak ez erailtzeko.

### Zeintzuk izan beharko lirateke bitarteko horiek?

Borondatea falta da, borondate politikoa batez ere, zentzu zabalenean ulertuta. Horrek 180 graduko aldaketa eskatzen du, eta ez naiz soilik patriarkatuari buruz ari, sistema sozioekonomikoaz eta kapitalismoaz ere bai. Gure burua eta jendartea egituratzeko modua aztertu beharko genuke denok. Gaur egun, European, gutxi dira erailtzen dituzten emakumeak, hemen eta orain, pertsona gisa garatzen uzten ez digun bortizkeria jasaten ari garen emakumeekin alderatuz.

### Bortizkeriak aurpegi asko ditu.

Desparekotasunean hezten gaituen jendarate batean jaiotzen gara, genero bitarreen zein beste arlo batzuetan ere. Gizarte egitura berak bortizkeria sortzen du pertsonaren oinarrizko beharrak asetzen ez uzteko.

### Gero eta onartuagoa daukagu emakumeen kontrako biolentzia?

Bai, botere harremanen arkitektura hori normalizatu dugu. Hezkuntzan eta familian ‘egokitu zaiguna’ normalizatzen dugu. Bortizkeria sinboliko asko jasaten dugu; emakumeok pertsonen beharrak ase, eta atseginak eta goxoak izan behar dugula esaten digute. Bi energia nagusi omen ditugu gizarteari eskaintzeko: ugalketa eta sexua. Bortizkeria sinboliko honek konturatu gabe desparekotasunean oinarritutako identitateak eraikitzen ditu.

### Testuinguru hori eraldatzeko lanean ari zarete Eraikiz kolektiboan. Zer egiten duzue zehazki?

Gure izena esanguratsua da. Taldean *eraiki* nahi dugu eta horretarako sortu ginen duela ia lau urte. Bi oinarri nagusi ditugu. Lehena, maitasunetik egiten dugula lan. Pertsonak dira gure jardueraren ardatza, ez etekin ekonomikoa. Bigarrena, esku hartze sozialean kalean lan egiten duten profesionalentzat ekarpenak egiten ditugula. 2015ean instituzioetan hiru proiektu aurkeztu genituen, eta hirurak onartu zizkiguten. *Feminismoa, bortizkeria matxista eta esku hartze soziala* proiektuak lau urte beteko ditu laster. Eragin handia du, pentsa, azken jardunaldietan esku hartze sozialean lanean diharduten 400 pertsonak hartu zuten parte. Arlo honetan gabiltzanok sarritan oso bakarrik sentitzen gara.

“Arlo honetan gabiltzanok sarritan oso bakarrik sentitzen gara”

## ▷ ▷ SAKONEAN

### “Feminismoa da dugun mugimendurik eraldatzailearena”

**Zure izena hainbat tokitan ikusi dugu: Bilobak talde feministak antolatutako tailer batean, Parlamentuan, Unibertsitateko erasoan aurkako protokoloa egin duen lan taldean... non sentitzen zara gusturago?**

Pertsonekin zuzenean egiten dut lan. Udan Foru Aldundiko harrera pisuetan egiten dut lan eta hainbat eragilek kasu puntaletan laguntzeko deitzen didate. Niretzat garrantzitsua da pertsonen errealitatearekin kontakturik ez galtea.

**Zu ere batzuetan bakarrik sentitzen zara?**

Jakina. Eraikiz sortzearen arrazoi bat hori izan zen. Bakardadea. Bizkarrean txaloak eman dizkirate animatuz baina era berean nigandik aldentuz. Eraldaketekin zerbait galtzearen beldur da jendea. Ez da kasualitatea gure izenak kolektibo hitza izatea.

**Feminismoa bultza daiteke egoera pribilegiatu batetik?**

Pribilegio bat egoteko desoreka bat egon behar da beste alde batetik. Erantzuna argia da. Gaur egun feminismoa da dugun mugimendurik eraldatzaile eta iraultzaileena, sistema kapitalista eta neoliberalaren goitik beherako eraldaketa aldarrikatzen ari delako mundu mailan.

**Zergatik bakardade sentimendu hori?**

Emakumeok eraikuntza langileak gara. Gizonezkoentzat diseinatutako jendarte kapitalista batean bizi gara, baina, aldi berean, beste hamaika gauza eraiki nahi ditugu. Horrek beldurra sorrarazten du. Inguruan ditugun pertsona gehienek *egon* eta *egin* nahi dute, eta ez *izan*. Garrantzitsua da ‘non nagoen kokatuta’ eta ‘zer egiten dudana’. Ezin egoteari eta ezin egiteari diogun beldurra itzela da. Beldurrean hezi gaituzte, eta horrek gu geldiarazteaz gain, mugitzen garenean mesfidati begiraten gaituzte, gure mugimenduak beraiengan eragina izango duelakoan.

**Babestuz programa sortu duzue haurren kontrako indarkeria sexualaren inguruan dagoen isiltasunarekin apurtzeko.**

Haurren aurkako hamar erasotik bederatzitik ezkutuan geratzen dira. Erasoaren %2 eta %10aren artean soilik ezagutzen dira. Zer gertatzen da gainontzeko %90 horiekin? Kasu gehienetan erasotzailea familiakoa da edo gertuko inguruan dago. Begietako loturak kentzeko ordua da, gaiari ondo heltzeko.

**Nolako jarduerak proposatzen dituzue?**

Hausnarketarako, kontzientziaziorako, sensibilizaziorako eta formaziorako gu- neak sortzen ditugu. Esku hartze zuzena egiten saiatzen gara eskaria egiten diguten taldeekin. Helduen mundua hartzen dugu erreferentziazat, gu garelako biolentzia ja- san duenari arreta eman ahal diogunak. Indarkeria erabiltzen duten pertsonekin ere lan egin behar dugu eta fokua beraien gainean jarri, berriro horrela joka ez deza- ten.

**Taldeko guztiak emakumeak zarete?**

Ez, gure sektorean gehiengoak emaku- meak gara, eta hori taldean nabaria da, baina badira gizonezkoak ere. Haiek ere inplikatu behar dira indarkeria matxisten aurka, eurak direlako bortizkeria hori era- giten dutenak eta arlo horretan lan handia dute. Mistoak ez diren espazioetan ere



egiten dugu lan, hori ere beharrezkoa delako.

### **Norentzat egiten duzue lan?**

Gizartearentzat ikusezinak diren pertsonentzat batez ere. Pertsonekin egiten dugu lan, ez gizarte arazoekin. Guretzat ez dira erabiltzaileak. Zailtasun handiak dituzten emakumeak dira gehienak, baita haur eta nerabeak ere. Azken hauek dira babes gutxi dutenak, eta beraien kontrako indarkeria sexuala ezkutatu egiten da. Ez dute agerian utzi nahi gaur egun emakume eta haurren gorputzetan dagoen hipersexualizazioa. Gainera, tratu txarrak jasaten dituzten haurren harretarako ez dago doako zerbitzurik.

### **Zuen lanen ikuspegi kritikoa eta eraikitzailea azpimarratzen duzue.**

Hori da gure filosofia. *Feminismoa, indarkeria matxista eta esku hartze soziala* egitasmoarekin adibidez, gaur egun emakumeak indarkeria matxistarengandik babesten dituzten legeak kritikatu nahi izan ditugu; baina, era berean, biolentzia horiekin lan egiten duten profesionalen emakumeak gehienak- lana aintzat hartuz. Emakume erasotuen %20ak baino ez du salaketarik jartzen eta instituzioek horiei erreparatzen diete soilik. Gainontzeko %80a alde batera uzten ari dira.

### **Salaketak jartzen ez dituzten emakumeekin nor ari da lanean?**

Baliabiderik ez duten hamaika elkarte. Horiek guztien lana ikusarazi nahi dugu. Gehienetan feminismoaz kutsatutako lana egiten dute eta emaitza onak izaten ditu. Erasoak pairatutako emakume asko heldu nahi duten tokira heltzen dira eta ez gizar-teak eraman nahi dituen tokira. Ezinbestekoa da feminismo teoriko, aktibista eta esku hartze sozialaren arteko sarea, eta horretan gaude.

### **Gizarte formazio feminista ere eskaintzen duzue.**

Feminismotik eta ikuspegi interseksionaletik egindako gizarte proiektuak diseinatzeko laguntzen dugu. Aurreko batean, adibidez, musika talde bateko kideek deitu ziguten haien kantetan ikuspegi feminista zelari zegoen txertatuta aztertzeko. Prebentzioari eta ahalduntzeari begira ere egiten dugu lan, 'arriku' egoeran dagoen populazioari zuzendutako ekintzetan.

### **Eraikiz kolektiboan parte hartzeko aukera zabalik dago?**

Noski, norbanako zein elkarte mailan. Gure webgunean informazio guztia aurki daiteke. Elkarlanarekin kontzientziak astindu eta aktibatu nahi ditugu.

**“Haurren aurkako hamar erasotik bederatik ezkutuan geratzen dira”**

EUSKARAREN ETXEA

## Umeentzako ikuskizunak

Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra bitartean, hainbat kultur jardue-  
ra eta ikuskizun antolatu dituzte  
etxeko txikienentzako. Magia, an-  
tzzeria, txontxongiloak, ipuin mu-  
sikatuak eta ipuin kontalariak, haur  
berbenak... deneratik izango da  
gabon hauetan Euskararen Etxean.  
Ikuskizunak abenduaren 26, 27 eta  
28an eta urtarrilaren 2, 3, eta 4an  
izango dira, goizeko 11:00etatik  
aurrera. Lehena, *Txoborro* magia  
ikuskizuna izango da, eta bigarrena  
*Boli bili boli* antzerkia. Abenduaren  
28koak *Txirriski txoriaren ipuin mu-  
sikatuak* du izena, eta mundu osoan  
bidaiatutako txori Afrikarraren isto-  
rioak kontatuko ditu. Urtarrilaren  
2an, aldiz, txontxongiloak izango  
dira, eta 3an ipuin kontalariak.  
Azken saioan haur eta familien-  
tzako *Mugi mugi* berbena egongo  
da, gorputzak dantzazteko.

JAIAK

## San Silvestreko jaiak Luzarran

Abenduaren 31n Ondalan konpartsak  
erromeria egingo du Luzarra eta Ra-  
mon y Cajal inguruan. Antzina, Lu-  
zarra inguruan basiliza bat zegoen  
eta ohitura zen bertan San Silvestre  
egunean erromeria egitea. Orain urte  
ba-tzuk Ondalan, Bihotz Alai eta  
Goikoalde taldeetako kideek jaiak be-  
rreskuratu eta urteko azken egunean  
erromeria egiten hasi ziren. Egun,  
Ondalanek baino ez du parte hartzen  
antolakun-tzan. Goizean erraldoiak  
ateratzen dituzte eta ibilbidea egiten  
dute Blas de Oteron duten lokaletik  
Luzarra eta Ramon y Cajal kaleen  
inguruetara. Gabonak data seinala-  
tuak dira erraldi konpartsarentzat.  
Abenduaren 21ean San Tomas egu-  
na ospatzen dute San Ignazion, eta  
24 goizean taldea bitan banatu eta  
Usansolo eta Portugaleteko Olentzero  
jaietara eramaten dituzte erraldoiak.

IRAKURLEEN TXOKOA

## Gerezi denbora berbagai Inazio Mujikarekin

“Benetan gertatua da: anarkista  
batek eta apaiz batek antolatu zu-  
ten CNTk atxilotutako artzapezpiku  
bat askatzeko ekintza.” Horrela  
dio Inazio Mujika Iraolak idatzi-  
tako liburuaren sinopsiak. Bertan,  
gera denborako hainbat gertaera  
bitxi kateatu ditu egileak, irakurlea  
ezusteko bihurtugunetan barrena era-  
manez: Bilbotik Donostiara, atze-  
guardiatik lubakietara, komediatik  
dramara... Urtarrilaren 23an Bidar-  
te Udaltzara etorriko da Mujika,  
*Gerezi denbora* (1999, Alberdania)  
liburuaren inguruan jarduteko.  
Egun horretan bertaraten direnek  
liburuaren gaineko azalpenak eta  
bitxikeriak entzungo dituzte, eta  
galderak egiteko tartea izango dute.




## ‘Gomutan, Bilboko historiaren atal ezezagunak’

Bilboren istorio ezezagun eta ahaztuak  
biltzen ditu Hektor Ortegaren azken la-  
nak: *Gomutan*. Liburuak 40 pasadizo  
eta bitxikeria dakartza, uriaren historia  
hobeto ezagutarazten laguntzen dute-  
nak. Ortegaren esanetan, helburua  
“historia ofizialean lekurik ez duten  
jazoerak batzea” izan da. Sei udale-  
txeak, Artxandako megalitoa, bilbota-  
rren lehen aztarna, mitologia Bilbon,  
Teresa Iturralde gerrilla kapitaina,

Santutxuko tabako-fabrikako matxina-  
da Jean Cassou erresistentziako heroi  
Deustun jaioa... dira ataletako batzuen  
izenburuak. Balio historiko handiko  
lana da *Gomutan*, Bilboko historiaren  
ikuspuntu desberdina proposatzen  
duena, euskaraz. Ahaztuta zeuden ira-  
ganeko pertsona eta gertaerak, orain  
arte liburuetan lerro bakar bat ere izan  
ez dutenek, garrantzia berreskuratu  
dute liburu honi esker.





Urtea: 1968

Txema Luzuriaga

## *Zorrotzaurreko punta*

Zorrotzaurreko Erribera etorbidearen amaiera, itsasadarra eta kanala elkartzen diren tokia. Azpimarratu nahi dut oraindik kendu gabe da-

goela Bilbotik Getxora zihoan tranbiaren linea elektrikoa. Bilboko Udal Artxiboak utzitako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

**~IZEKI~**  
**TABERNA**  
 BETI ZIZEKAN SUA  
 argi bat izeki zen zeruan  
 su horidun sugarra ostopo  
 itzalsuen atzean  
 Ramon & Kaja 26  
 DEUSTU

**DENDA IREKIERA**  
 Gizonentzako denda

**Level 1**

Madariaga 10 DEUSTU  
 level1.es 946 85 53 80

**Optica**  
*Avenda*

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:  
 SAN INAZIO 94 475 11 24

**ATXURI**  
**TABERNA**

Luzarra 1  
 Deustu  
 946 75 40 17

**BREST**

kafetegia  
 Blas de Otero, 5  
 Tfnoa: 94 447 95 43

**Alonso Pertsianak**  
 Plaza Celestino M<sup>a</sup> del Arenal, 12  
 48015 Deustu-Bilbao  
 Tel.: 94 600 14 24  
 alonsoper@euskalnet.net

**Urrunago zertarako?**  
 Deustuko Liburudenda  
 San Pedro Plaza 4

*Yoki Berrri*  
**Taberna**  
*Good vives!*

Luzarra, 6 - Deustu  
 @tokiberritaberna

1924tik Deustun

**Tintoreria**  
**La Flor**

Julio Urquijo 3 - Deustu  
 94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze  
 jantziak...garbitzen ditugu

**artez**  
 euskara zerbitzua

**Probatu**  
**herrizki.eus**

ANDROID APP Google play Apple App Store

Ramon y Cajal, 8 behea  
 48014 Deustu  
 tel. 94 475 22 33  
 matxintxu@aeknet.net

**Matxintxu**  
 aek ■ euskaltegia

Matrikula zaitetz!

**Nailan**  
 Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g  
 48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84  
 nailanparquet@euskalnet.net

**RONDOKO**  
 HORTZ KLINIKA

*Iratxe Jimenez Bobadilla*  
 ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa  
 Ume eta helduak  
 Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
 Peridontzia eta protesi kengarriak  
 Ortodontzia

PADI  
 OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
 E.P.S. 425/97

**Bitxidenda**

*Sabin*  
**Erlojudenda**

Rafaela de Ibarra, 6  
 Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS**  
**KM**  
**CERRAMIENTOS**  
*Deitu eta Ikusi!!*

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
 TEL. 94.447.70.32  
 E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com  
 www.persianaskm.com

**BIDAURRE**  
 elektrizitate eta margo-lanak  
 2daurrelan@gmail.com  
 669 42 76 23

Zer deritzozu oraindik ere  
Deustu eta San Ignazioko  
kaleetan izen eta ikur  
frankistak izateari?



**Beatriz  
Sarriko**

Ni ez naute gogaitzen. Adibidez, Mondragon esaten jarraitzen dut, eta ez Arrasate. Kaleen izenen aldaketek ez didate ezer transmititzen, gaztea nintzen garaiko nostalgia baino.



**Ricardo  
Sopela**

Gaizki iruditzen zait, batez ere auzokideak aurka baldin badaude. Zerbait egin beharko litzatekeela uste dut.



**Alberto  
San Inazio**

Oso txarto iruditzen zait. Pentsa, ni jaio nintzen kalea División Azul deitzen zen, oraingo Larrakotorre. Denak aldatu beharko litzatekeela uste dut.



**Igor  
San Inazio**

Gaizki. Uste dut Bilboko Udalak zerbait egin beharko lukeela horrekin.



**Karmen  
Plentzia**

Guztiak kendu beharko litzateke. Bada garaia.



**Andoni  
Deustu**

Udalaren ardura da kaleen izenak aldatzea eta ikur horiek kentzea.



# harkua bete berba

>> MUSIKA



## ‘LANDAN LAN’

*Sei abestiko diskoa aurkeztu berri dute Auzokok eta Saimek. Lan egiteko era desberdina, erritmo berriak eta hainbat kolaborazio biltzen ditu diskoak. Biek Zoroen Kluba Kolektiboa osatzen dute Mujirekin batera.*

**Testua:** Jone Gartzia - **Argazkiak:** Zoroen Kluba Kolektiboa

Rapak Zoroen Kluba kolektiboaren azken lanaren oinarria izaten jarraitzen du, baina doinu berriekin esperimentatu dute oraingoan. Traparen erritmoa antzeman daiteke instrumentaletan eta melodiaren presentzia orokorra da Auzokoren ahotsetan.

Erritmoekin jolasteaz gain, lan egiteko era aldatu dute. Auzokok Bartzelonan zegoela idatzi zituen letrak, Simon ekoizleak Lemoizetik bidaltzen zizkion musika oinarrien gainean. Udan biak elkartu eta estudioan nahastu zituzten osagai guztiak. Ordu luzeak eman zituzten elkarrekin lan eta lan, probak egiten, erritmoak ekoizten eta kantuak grabatzen.

“Oso prozesu aberasgarria izan da biontzat”, diote musikariek azken lanaz hitz egitean, “gureaz aparte, proiektu honetan gurekin lan egin duten pertsonengatik”.

Izan ere, kolaborazio ugari izan ditu lanak. Instrumental gehienak Saimek ekoizti dituen arren, hainbat lagunen doinuak sartu dituzte: Glaukomako Iker Pandoren gitarra akustikoa, Patxadaz Taldeko Aldoren gitarra, Bartzelonako lagun Danyelen saxoa... Gainera, lehen aldiz Antxon Sagarduiren estudioan masterizatu dute diskoa, eta aurrerantzean ere horrela egiteko asmoa dute. Bestalde, diskoaren diseinu grafikoaz Mikel Urieta eta Ibon Montañó arduratu dira.

Ohi legez, YouTubean eta Bandcampen jarri dute doan entzun eta deskargatzeko. “Beti egiten dugu horrela”, diosku Auzokok. Laster EPA euskarri fisikoan kaleratzeko asmoa dutela aurreratu digu eta Mujiren *Mi método* diskoarekin batera salgai jarriko dute, biak bost eurotan. Abestiekin batera, bideoak ere egingo dituzte.



**Aurkezpen jendetsua**  
Abenduaren lehenean jaialdia antolatatu zuten Deustuko Gazte Lokalean *Landan Lan* jendaurrean aurkezteko. Arratsalde berezia antolatzeko asmoz, hainbat lagun gonbidatu zituzten oholtzara eta Bilboko rap egile gazteek bete zuten Gazte Lokaleko agertokia: Ziztadak, Mc Sebasek, Raperuk, Komando Bragak, Akerjenbek Sound Sistemak, Uki Selektak... Hirian rapak eta gazteek duten presentzia agerian utzi nahi izan zuten era horretan. Baita

lortu ere, “aurkezpena hasi zenetik Gazte Lokala itxi zen arte beteta egon zen denbora guztian”, diosku Auzokok.

Urte eta erdiko ibilbidean hirugarren lana argitaratu du Zoroen Kluba Kolektiboa, eta hurrengoan pentsatzen hasiak dira jada. Oraindik kantuak dituzte argitaratu gabe, eta horiek fintzeari ekingo diote hurrena. Gainera, Saim ekoizlea kanpoan denez, jende berriarekin kolaborazioak egiteko aukera baliatu nahi dute.





# BABESTU PREST! ALDIZKARIA

*Prest! aldizkariaren 197. alea duzu eskuartean. Hamazazpi urte luzetako lanaren fruitua da hau, herritarron ekarpen eta kolaborazioei esker aurrera eramana.*

Bidea luzea bai, baina ez da erraza izaten ari azken aldian. Izan ere, aldizkariaren egoera ekonomikoa ez da onena. Azken urteotan izugarri murriztu zaizkigu diru-laguntzak eta publizitate-sarrerak. Inprimatze eta banaketa gastuak, aldiz, asko garestitu dira. Ezinezkoa zaigu egoera honetan aldizkariari eustea, eta burujabe bihurtu nahi dugu.

Babesle kanpaina abiatu dugu horretarako. Irakurle guztien ekarpena beharrezkoa da, aldizkaria egonkortu eta honen etorkizuna ziurtatzeko. Duela urte batzuk irakurleei urtean 25 euroko laguntza xumea eskatzeari ekin genion finantziazio iturri propioak indartze alde-

ra. Irakurle askok oraindik dohainik jasotzen duzue aldizkaria, baina horrek bideragarria izateari utzi zion aspaldi.

Prest! aldizkaria babestu nahi baduzu, era askotan egin dezakezu: helbideraketa bidez, transferentzia eginez edo eskura emanez. Horretarako zure datuak helarazi ahal dizkiguzu hurrengo helbideetako batera:

|   |  |
|---|--|
| <p><b>Bete beharreko datuak:</b><br/>         Izen-abizenak<br/>         Helbide elektronikoa<br/>         Telefonoa<br/>         Kontu zenbakia (IBAN)</p> | <p><b>Nora bidali:</b><br/> <a href="mailto:prestsharpide@gmail.com">prestsharpide@gmail.com</a><br/>         94.447.10.42<br/>         Ramon y Cajal 42<br/>         48014 (Deustu)</p> |
|---|--|



## BABESTU **Prest!** ALDIZKARIA URTEAN 25 EUROKO EKARPENAREKIN

[prestsharpide@gmail.com](mailto:prestsharpide@gmail.com) - 944.47.10.42  
 Ramon y Cajal 42 - Behea



# BIZIRIK GAUDE!

*Aurreko urteko irailaren lehenengo egunetan Gazte Lokaletik alde egiteko 15 egun genituela esan zigun Bilboko Udalak. Gutun bidez jaso genuen huste-agindua harremanetan geunden bitartean. Lehenengo egunetik hasi ginen asmo honen aurka lanean, gure bizitza den Deustuko Gazte Lokala defendatzeko egin beharrekoa egingo genuela argi baikenuen.*

**Testua eta argazkiak:** Deustuko Gazte Lokala

Asanblada informatiboak, prentsaurrekoak, kartelak, pankartak, elkarrizketak, mobilizazioak, sinadura bilketak, emanaldiak, obrak... mota guztietako ekintzak egin genituen. Guztion lanari esker argi geratu zen Deustuko Gazte Lokala defendatzeko herri bat prest zegoela.

Udala, gezurrak medio, hainbat modutara saltzen saiatu zen Gaz-

te Lokalaren balizko hustutzea. Zortzi etxebizitza ziztrin egiteko bota nahi zituzten Txoridenda eta merkatu zaharra eta azpiko solairuak "modu autogestionatuan" musika taldeentzat eskaini.

Badirudi ez direla nahikoak Deustuko Erriberan egingo diren 5.000 etxe berriak edo Deustun hutsik dauden ehunka etxeak. Horiek ziren euren argudioak, baina guk

hasieratik argi izan dugu Udalaren arazoa ez dela etxebizitza falta, baizik eta gazteria antolatzeko eta eskaintza alternatiboa egiteko espazio aske bat izatea Deustun.

Urtebete baino gehiago pasa da mehatxu hori jaso genuenetik. Ordutik hamaika ekintza antolatu ditugu, moldaketa lanak egin ditugu, kolore horiz margotu dugu Gazte Lokala... Hemen jarraitzen dugu, Ramon y Cajal eta Luzarra kaleen artean, baina ez edonola.

Inoiz baino biziago gaude, mehatxu honek indartu egin gaituelako. Ospatzeko hilabete hasieran bi asteko egitarau oparo eta anitza antolatu genuen. Abenduarekin batera hasi zen ospakizuna, Kuadrillen Eguna eta Zorroen Klubaren maketa berriaren aurkezpenarekin. Giro paregabea egon zen larunbat osoan zehar Deustuko iparraldean.

Abenduaren 4ean Sendabelar Tailerra egin genuen, inguruan





# barkua bete herba

aurkitu ditzakegun landareek dituzten erabilerak hobeto ezagutzeko. Hurrengo egunean Deustu ez dela Bilbo aldarrikatzeko afaria egin zuen Deustuko Gazte Asanbladak, mitin politiko eta guzti. Abenduaren 6an Txoringitza ireki genuen ostegunero bezala, jai egun arrotzek ez baitute lekurik gurean.

Abenduaren 12an Euskal animaziozko laburmetraiak proiektatu genituen, *Areka*, *Beti bezperako*

*koplak* edota *Miraila* eta solasean ibili ginen zuzendarietako batzuekin.

Ostegunean Palestinako Askatasun Fronteko Fayez Badawi egon zen gurean, Palestinaren egoeraren eta Siriako gerraren inguruko hitzaldia ematen, Siriaren Alde plataformak antolatua.

Ostiralean hainbat ekintza antolatu genituen: Jantoki Herrikoa, hiri ereduari buruzko hausnarke-

ta egiteko mahai-ngurua eta kalejira Deustun zehar.

Ospakizunak amaitzeko Los Cosméticos, Uger eta Diana Lagartoren musika emanaldiez gozatu genuen larunbatean.

Argi daukagu ez garela hementik joango, gaztetxea gure etxea delako. Argi utzi dugu bizirik gaudela eta, bizirik gauden bitartean, Deustuko Gazte Lokala defendatzen jarraituko dugula!



[www.pabellon6.org](http://www.pabellon6.org)

## GABON ZORIONTSUAK URTE BERRI ON

*seguimos, seguimos*





# PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

## BAKILAO BROXETAK



*Blas de Otero kaleko 1. zenbakiaren ondoan dagoen Brest taberna-kafetegira gerturatu gara oraingoan. Egunero eskaintzen dituzten janari eta edariez gain, pintxo berria aurkeztu digute Adak eta Patxik.*

**Zailtasun maila:** Ertaina

**Egiteko denbora:** 15 minutu

**Prezioa:** 1,50 euro

**Berezitasuna:** hotz zein bero eskatu daiteke eta ogiarekin edo ogi barik jateko berdin aproposa da.

### Kontu batzuk

Urteetako lanaren ostean erretiroa hartu du Brest kafetegiko Miguelek. Taberna gidatzeko lekukoa Patxi semeak hartu du, bertan zerbitzari urteak emandakoak. Tabernaren giroari jarraipena eman dio Patxik, baina ukitu berritzaileekin. Azaldu digun bezala, "ohiko kafeak eta tortillak" eskaintzen jarraitzen dute, baina baita hainbat berrikuntza ere. Horien artean, bakailao gordineko broxetak. Arrain gordinak azken urteotan hartutako ospea aprobetxatu nahi izan dute, betiko bakailao broxeta berritzeko. Leku gutxitan aurki daiteke gisa honetako pintxorik.

### Brest kafetegiko Ada



# BREST

## kafetegia

### BREST KAFETEGIA

Blas de Otero 5, Deustu

94 447 9 43

Astegunetan: 07:30-itxi arte

Asteburu eta jaiegunetan: 09:00-itxi arte



## Zelan egin?

Aurrena bakailoa gatzgabetu eta zatitu behar da. Berakatzatza eta kaie-narekin konfitura prestatzen da hurrena.

Ondoren, olioia epel isuri behar da bakailao gordinaren gainean. Horrela edo labean apur bat berotuta jan daiteke.

## OSAGAIK

*Bakailao gezatua gatz puntuan  
Oliba olio birjina  
Berakatzatza  
Kaiena*



## Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

Ramon y Cajal, 24  
DEUSTUA


Tfñoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako frontoiaren atzean



**Deustuko  
Ramon y Cajal kalean  
girorik onena!**



*Pedro Carballo Suárez*

**ZURE PINTXO  
ONENAK GUREKIN  
KONPARTITZEKO**

# prest?

**AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN**

Plaza San Pedro, 2 • Teléfono: 94 476 43 96 • DEUSTO - BILBAO



# kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



## JOSU OLEAGA

*Edozein*

### IPARRA GALTZEKO ERREFERENTEAK

Ezagutu zintudanetik zure modukoa izan nahi izan nuen. Oraindik ere, egunero-egunero, eguna amaitzen denean, sinetsi ahal izateko arrazoi baten bila aritzen naiz. Ni ere hildako gizonen hiri batean jaiotzen, eta lehen pausoa ematean erori egin nintzen. Eta, arrazoia duzu, kolpe gehiegi hartu dituen txakurraren moduan sentitzen zara. Trumoiaren errepidea zeharkatuz ibaira jaitsi nintzen, eta zin egiten dizut inoiz ez dudala amore emango, loria-egunak igaro diren arren. “Boss” deitzen dizute, baina niretzat beti izango zara nire ametsen ore berberarekin eginda dagoen gizona.

Cohenek bezala, nik ere nahi dut maitasunaren amaierara arte dantzan eraman nazazula. Hastapenetan besterik ezagutzen ez ditudan gauzen mugak irakastea nahi dut. Eta zure begiradatik ondorioztatu nuen gaurko gaua ondo egongo dela, tarte baterako bada ere.

Bonbilla berdeko etxera eramango zaitut, zuk “ojalá” esango duzu, eta nik abesti bat oparitutko dizut. Eta horixe izango zara... Marianaren moduan, koldarkeria inoiz ez baita maitaleen kontua izan, eta maitasun koldarrak inoiz ez baititugu elkartuko.

Bobekin zeruko atea jotzera joan nintzenean ez zuten ireki, eta nire alaba ikusten dudak bakoitzean, ematen du *Just like a woman* entzuten dudala. Askotan egon nintzen benetako ezezagun baten moduan, etxerako biderik gabe, eta horregatik, Rolling Stone bezala sentitzeko eskubidea irabazi nuen.

Inoiz ez naiz zure doktorea izango, baina bai zure desiraren gitarra. Eta elkarri iruzur egin arren, zure bila aterako naiz, eta zuk aurkituko nauzu, azkenean, bi bihotzen arteko ekilibristak baino ez gara eta. Anarik oso ondo daki hori. Eta gaur gauean Martín Hacherekin oheratuko naiz, Dante entzun nahi baitut niri esaten, arrazoirik geratu ez arren, beti aurrera jarraitu behar dela... jakinuragatik soilik bada ere.

Eta, amaitzeko, mila-mila esker ur handitan inoiz urperatzen ez den komandanteari, zirrikietatik sartzen den Arratiko haize leunaren antzekoa den euskara-adituari, eta, batez ere, zuri, nire testuak irakurri dituzulako. Hasi nintzen bezala amaituko dut, Irene Xrekin, hiltzen nau eta: “bizitza besteko ederra banintz, ni neu ere horren puta izango nintzateke”.



## SALVA ANAKABE, MIKEL AUZMENDI, EGOITZ OZAMIZ

*Elorri bertso-eskolako kideak*

### URTE HOBE BAT ESKA DEZAGUN

*Doinua: Txoriak eta txoriburuak*

Konturatu ez, ta dagoeneko abendu erdian gara pentsatu ez baina, noizbehinka ere badaukat bai bihozkada. Ezer jango ez, buruari esan baina egia da, hara, baita aurten're, ziur turroiak ta polboroiak akaba.

Ingurukoez disfrutatzeke sortua bazen gabona, etxe guztitan elkartzeko're ilusio bat dagona. Urte hobe bat eska dezagun ta opatu zoriona, autokritikaz elikatu ta izanez pertsona ona.



# KUSI ETA KASI

• FAMILIAN EUSKARAZ GOZATU •

Tailerretan parte hartzeko derrigorrezkoa da **urretik** izena ematea **www.ikusietaikasi.eus** gunean aurkituko duzuen izen-emate fitxa betez.

**IZEN EMATE EPEA: URTARRILAREN 14TIK 27RA.**

**2019ko**  
OTSAILA MARTXOA APIRILA MAIATZA



euskaltzaleen  
topagunea



# Bilbon euskaraz



# Bilbao



# BEA ILARDIA

EH Bilduren Bizkaiko ahaldun nagusigaia

Urte berri,  
Bizkaia berri.

*Bea Ilardia*